

## Elkar-bide baten bearra

*Alderdi*, 281. zk., 1973-01.

Gure artean asko itzegiten dugu; larregi ere bai; baiña ez diogu elkar aditzen.

Bakar izketa bizian, bai, baiña agor, alper eta antxuan ari gera.

gaurko gure erriak besteren bearrik ba du. Iñoiz Euzkadiren alde ezer egiteko eta Euzkadiren neurri bat emateko asmorik izan badugu, oraintxe dugu, oraindik, gure erriaren bide berri-zabal bat egiten asteko garaia. Gizon eta erri neurrian menderatuta bizi geranok elkar artuko gaituan bide berri bat idekitzeko unea emen eta orain dagoela ikustea ez da zailla, ez baitago besterik, beste Aberri-biderik.

Au barruari dagokion lotura-indarrari begira jarrita.

Agerian dago, beste aldetik, mundu berriaren giroari dagokionez, gure erriz kanpoko laguntza gutxiren zai egon gindezkala.

Or joan da Nixon Pekin eta Moskura; or joan zaio Golda Meir judua Aita Santuarengana, eta or dioa laixter Aita Santua Pekineraiño, diotenez. Pompidou eta Brandtek ba dute, bai abertzaletasun aldetik, baita alderdiak direla merio ere, zenbait diferentzi, baiña elkartzen dituanak besopean artu, gainontzekoak oraingoz beintzat zokoratu eta elkar-bidean (batasunean ezin oraindik, noski) gero eta estuago jarraitzeko erabakia artu dute. Bi Alemaniak ere ba dute, ba, arpegira elkar zer bota, eta ala ere beren arteko asarre gogorak alde batera utzi eta aurrera dijoaz. USAko eta Vietnameko ordezkariak Parisen erabakitakoaz zer esanik ez. Jokua au asi berri-berria da; izango du ondorena pranko. Eta elkar ikuste oiek ez dituzte egin juduen Leen Ministroak Aita Santua ikusteko gogoia zeukalako, onek Txinako buruzagia agurtu nai duelako; ezta ipar-amerikarren Lendakariari Txina eta Errusira pasiatzera joateko gogoia kolpetik etorri zaiolako eta ezta Brandtek Paris ikusteko egarriaz joan zaiolako ere.

Premiak idekitzen ditu makiña bat bide.

Bearrak agintzen du emen ere; bear bada, guda-bideak sentitzeko tentazio faltarik ez dute izango batzuk, Vietnameko eta Usako agintariak esaten baterako, baiña aurrera bizirik aterako badira, nolabait buruak oztu eta sentsutu bear.

Gure artekoak ere ba du nagusienak direnetatik zer ikasi.

Guk ere gure artekoak baditugula, eta aurrera ere izango ditugula, nork uka. Ama batetik eta azi-arraultz beretik jaiotako anai bizkiak ere izaten dituzte-eta. Ba ditugu, noski, bai ideoloji orokor aldetik eta baita joera aldetik ere iritzi bat baiño geiago; naiz-eta askotan bata bestearengandik aparteak ba-dira ere uste baiño bitarte txikiagokoak direla konturatu nai ezin eta setaz ibili.

Setatsuk gerala ezin ukatu.

Baiña nolabait orrelaxe egin gaituan erria or dago gu denon zai, eta guk Euzkadi noiz-nolakoa egingo dugun jakiteko leen ekite au nondik asi erabakitzeko elkar-izketak bear ditugu seriozki antolatu; elkar adi eta entzun eta bata-bestearentzat esaten ditugun itzak pixatu eta neurtu egin bear ditugu egin aal ditugunak nola egingo ditugun

bururatu eta egin ezin ditugunak noiz arte utzi bearrean arkitzen geran pentsatu bear dugu.

Elkarrekin euskotarrok estratejia bat eta taktika bat artzeko gauza ez bagera, ez gera ez gizon eta ez erri bezala ere askatasunaren diña agertuko.

Estratejia zabal batek ezarriko dizkigu mugak, bai gure gaitasun aldetik eta baita gure adi-ezinetik ere; baiña ala ere neurri txikien batean elkar errespetatzen duguna artzea ez da asteko gauza pittina izango.

Gutxigorekin oituak gabiltza aspaldi.

Gero, taktikak ere ez ditugu neurri berez begiztatuko, eta emen ere antolabide batera eltzeko zerbaitera makurtu bearoko dugu denok.

Egin genezake guk ere besteak ainbeste.

Ez ote dugu guk besteok ainbat biotz eta buru? Ez ote gera elkar bizitzeko bide zabal bat egiteko gauza? Ez ote gera gure erriak gaur eskatzen duen neurria emateko abertzale?

Erantzuna geure buruari geok eman bear.

Eta bideak egiten asi.